

Haur Eskolan gela bat gehiago

Eskaria handitu
egin da ▶ 7



Usabalgo igerileku berrien proiektua aurkeztu du Tolosako Udalak

URTEBETE ▶ 2005eko ekainerako amaituko dira;
bihar emango zaio behin betiko onespena ▶ 2



Igerileku berrien obrak Usabalen, atzo, eraikuntza grebagatik geldirik. LEIRE MONTES



GORKA ETXEBERRIA ▶ TOLOSAKO ENTRENATZAILEA

«Bosgarren postuan
bukatzea oso ondo dago,
genuen taldea ikusita»

Egindako lanarekin gustura dago;
datorren urtean igoera du helburu ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Hizkuntz eskubideen aldeko manifestaziora joateko autobusa ▶ 5

VILLABONA ▶

‘Sonata
segundo
batean eta
piku’, bihar

Gurean izango da,
22:30ean ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Loatzo musika eskolan matrikulatzeko epea, astelehena bitarte

Zortzi herritan dago zabaldua orain;
datorren urtean, Alegian ere bai ▶ 6



ZURICH ASEGURUAK

MIGUEL LARRARTE PÉREZ

Tituladun Aseguru Artekaria

ETXEA • ISTIRIPUAK • DENDAK • AUTOAK • BIZITZA
INBERTSIOAK • OSASUNA • PYMES •...

Tel.: 943 650546 • faxa: 943 655649 • mug. 655 724 978

Bulegoak: Gernikako arbola, 4 • 20400 **TOLOSA** • m.larrarte@euskaltel.net

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
 Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga. Martin Iraola,
 10 (Tolosa). 943 67 24 38.
 M. I. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak 2004eko maiatzaren 17an egindako bileran honako proiektu honi hasierako onespenea eman zion zenbait baldintzarekin:

Usabalgo Iparraldeko Kirolegiaren inguruko Urbanizazio Proiektua. Proiektua, interesatuek beren interes aleko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HAMABOST EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egun eta biharamunetik kontatzen hasita) jendearean jarrita egongo da. Hirigintza Plana emendatu Erregelamenduko 141 artikulua eta Hirigintzaren Plangintza eta Kudeaketarako tresnak izapidetzeko ekainaren 30eko Eusko Legebiltzararen 17/94 Legeko 7. artikulua xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Biltzailearen Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da. Espediente, inork aztertutako nahi badiu, Udaltzeko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaltzeko Sarrerak Erregistrotan aurkeztu.

Tolosa, 2004eko maiatzaren 25an.
 ALKATEA.

HIRIGINTZA ▶

Usabalgo igerilekuen proiektua aurkeztu dute

Herritarren iritzia eta proposamenak jasota, bihar emango dio behin betiko onespenea Tolosa Lantzen-ek; 2005. urteko ekainean amaitzea espero dute



Usabalgo kirolguneko lanak, geldirik, eraikuntza greba dela eta. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

Usabalgo kirolgunea izango dena itxura hartzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Eraikuntza greba dela-eta egunotan ez da langilerik ikusten bertan, eta makinak eta garabiak geldigeldirik daude; baina hainbat eraikin nolakoak izango diren nabari daiteke dagoeneko. Kirolguneko proiektuaren barruan igerilekuena da ardatz bat: horixe bera izan zuten hizpide herenegun Udaltzaren ordezkariak, proiektuaren nondik norakoak aurkeztu baitzituzten jendaurrean.

Kirolgunearen proiektuaren ikuspegi orokorra azaltzen hasi zuen jarduna Jokin Bildarratz alkateak: «Kirolgunearen proiektuaren baitan, hiru ildo dira garrantzitsuak: igerilekuena, inguruan joango den urbanizazioarena, eta futbol zelaiarena». Andoni Imaz kirol zinegotziak igerilekuaren proiektua jendaurrean aurkeztearen zergatia azaldu zuen: «Proiektua aurreratu nahi genuen, 2005. urteko udan kanpoko igerilekuia izatea herriarentzat oso garrantzitsua iruditzen baitzaigu. Horregatik aurkeztu nahi genizkizuen xehetasunak, denon artean proiektu hau adosteko». Uda-

lak taldeen eta norbanakoen iritzia eta proposamenak jasoko ditu egunotan, eta bihar emango dio behin betiko onespenea proiektuari Tolosa Lantzen-ek.

Kanpokoak eta barrukoak

Kanpoko eta barruko instalazioak jasotzen ditu proiektuak. Barruan bi igerileku eraikiko dituzte: bat 25 metrokoa, hamar kale edukiko dituen, eta lehiaketetako homologatua izango dena; bestea, 18 metrokoa, irakaskuntzarako erabiliko da. Biak sakonera desberdinak izango dituzte alde batean zein bestean. «Esan digutena araber, badirudi elkartek gustura daudela barruko igerilekuekin. Haiekin eztaba-dutzen aritu gara eta irakaskuntzako, adibidez, handitu egin da», azaldu zuen Imazek.

Kanpoan ere beste bi igerileku eraikiko dituzte: bat txikia, sakonera gutxi izango duena; eta bestea 25 metrokoa, bost kale izango dituen eta, albo batean, tranpolinak eta txirristak jautzeko eta jolasteko. Besteek bezala, hauek ere sakonera desberdinak izango dituzte batean eta bestean. Eta inguruan, solariu zabala, belar artifiziala eta belar naturala uz-

tartuko dituen. «Igerileku hauek interesatzen zitzaizkigun, batez ere. Ez genuen nahi uda iritsi eta kanpoko igerilekurik gabe egotea; horregatik, gure helburua proiektua aurreratzea izan da, datorren udan haietaz gozatu ahal izateko. Oraingo, lanak behar bezala doaz. Eraikuntza greba dela-eta obrak geldirik daude egun, baina dagozkien etapan egingo direla espero dugu». Lanak behar bezala badoaz, 2005. urteko ekainerako erabili ahal izango dira igerilekuak.

Imaz kirol zinegotziaren hitzetan, «helburua denok gustura egotea da. Guztiok landutako igerilekuak nahi ditugu herriarentzat». Era berean, proiektuan «kirolak eta aisialdiak bat» egiten dutela gaineratu zuen: «Igeri egiteko lekua barruko igerilekuak izango dira aproposago, eta kanpokoak aisialdirako. Gunea denei zabaltzea ezinbestekoa iruditzen zaigu».

Oraina eta geroa

Egun herrian dauden instalazioekin alderatuta, proiektua «osatuagoa eta hobea» izango dela adierazi zuten Udaltzaren kideak. Asier Bakaikoa kirol teknikariak azaldu zituen Iga-

IGERILEKUAK

Barruan hamar kalekoa eta irakaskuntzako; kanpoan bost kale eta txirristak dituen, eta txiki bat

SOLARIUMA

824 metro koadroko belardia du Igarondok, eta 2.257koa izango dute Usabalgo kanpoko igerilekuek

rondoko eta Usabalgo igerilekuen arteko desberdintasunak: «Ur laminari dagokioenean, 1.410 metro koadro ditu Igarondoko igerilekuak, eta Usabalgoak 1.325 izango ditu. Bestalde, solariumeko zabalerak 824 metro koadrokoa da Igarondok, eta 2.257koa izango da Usabalen». Imazen esanetan, «jendearen eskaera izan da solariuma handitzea. Aisialdirako gune horri hainbat erabilera eman nahi diogu; udako hiru hilabetez gain, neguan ere bertan zer egin daitekeen aztertuko dugu».

Igerilekuaren aforoa izan zuen ardatz ondoren Bakaikoa teknikariak: 1.645 lagun hartu ahal izango ditu egunean Usabalgo igerilekuak, eta 500 lagun egon ahal izango dira uretan aldi berean. «Aurreko urteak datuei erreparatu, batzuek 500 lagun hartu zituen Igarondo igerilekuak udako hilabetetan; gehieneko kopurua, 520 lagun, iazko uztailaren izan zen. Beraz, eskainiko den aforoa handia iruditzen zaigu».

Ekainaren lehen egunetan —hilaren 7a inguruan— inaguratu nahi dituzte igerilekuak Udaltzaren kideekin. «Egun horretan igerilekura jauzi egingo genuela agindu nion lanen arduradunari. Beraz, urez beteta egotea espero dut!», esan zuen erdi txantxetan Bildarratz alkateak. 2005ean, hain zuzen ere, amaituko da kirolgunearen lehendabiziko fasea —kantxa polideportiboa, igerilekuak, gimnasioak...—, eta bigarrenari —hidromasaiak, bestelako gelak, frontoiak...— 2006. urtean ekingo diote.

GIZARTEA ▶

Hartsuagaren eskutik, etorkinak eta hizkuntza

Juan Inazio Hartsuaga, Hizkuntz Eskubideen Behatoki-ko zuendariak hitzaldia eskainiko du gaur Irazki elkar-tearen 1. urteurreneko ekital-dien baitan. *Hizkuntz eskubi-deak eta inmigrazioa* 20:00-etan hasiko da Kultur Etxean.

GAZTERIA ▶

Erregimen zibilak hizpide gaurko solasaldian

Udaleko Gazteria Batzordea-ren hitzaldien artean, eman-tzipazioaren inguruan ariko dira gaur Maider Alegria abokatua: erregimen zibilen inguruan mintzatuko da, 20:00etan, Kultur Etxean.

PRESOAK ▶

Azkaratek bertan behera utzi zuen atzo gose greba

Manu Azkaratek gose greba-ri ekin zion larunbatean Ma-drilgo Alcala-Meco espetxe-ko erizaindegian «inkomuni-kazioa eta isolamendua» sa-latzeko. Ezker abertzaleko ki-deek esan dutenez, atzo ber-tan behera utzi zuen gose greba. Hala ere, Manu Etxera plataformak aurrera egingo du mobilizazioekin: igande-an bilera informatiboa izan-go da 20:00etan Triangulo-an, asteartean biltzar zabala Kultur Etxean eta hilaren 19an espetxe horretara auto-busa irtengo da.

MUSIKA ▶

Ainhua Artetaren errezitaldirako sarrerak salgai

Ainhua Arteta soprano tolo-sarrak Ainhua Zubillaga me-zzosopranoarekin eta Pedro Jose Rodriguez pianojolea-rekin batera hilaren 16an Leidor aretoan eskainiko duen errezitaldirako sarre-rak salgai dira Kultur Etxean.

GORKA ETXEBERRIA ▶ TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEA



IRATXE ETXEBESTE

«Tolosak beti izan behar du amets hirugarren maila»

Maila igoera helburu izan daitekeela dio Gorka Etxeberriak; gustura dago jokalariek aurtan egindako lanarekin

IRATXE ETXEBESTE

Donostiatik Berazubira, jokala-rietako batekin egin zuen hi-tzordura zetorrela egin du so-las Hitzarekin. Mutil bakoitza-rekin denboraldiko ebaluazio-pertsonala egiten du, izan ere, beti. Gurekin urte osokoa eta datorrenekoa egin du Tolosa-ko entrenatzaileak.

Denboraldia amaitu berri da. Zer balorazio egiten duzu?

Orokorrean oso pozik nago. Iazko taldea indartsuagoa zen, eta argi genuen goian egotea ez zela aurtan oso erraza izan-go; hori ikusita, bosgarren pos-tuan bukatzea oso ondo dago.

Baja garrantzitsuak izan ditu-zue aurtan, ezta?

Kapitaina, goleatzailea eta hi-rugarren mailara joan diren bi jokalaririk. Lau baja asko dira, eta zulo horiek etxeko gazteekin bete ditugu. Denboraldi hasie-ran indar askorekin hasi ziren, baina gazteak dira, eta nabari-

tu egiten da hori bukaera alde-ra. Hala ere, lan ona egin dute.

Zer egin duzu horretarako?

Dezente exijitu diet jokalariei; gehiegi, agian. Tentsio handiko urtea izan da aldageletan, eta oso neketsua. Baina gure ahul-tasuna ikusita, modu bakarra zen lehiari aurre egiteko. Argi izan behar da Tolosa CF ez dela herriko jendeak joka dezakeen talde bat, baizik eta klub indar-tsu dela. Hala ere, badakigu ez dela funtzionatzeko erarik egokiena: jendea gogaitu egiten delako eta jokalaririk batzuk ez dutelako presio hori jasaten.

Datorreneko metodologia bera mantenduko duzue?

Aldatu beharra dago. Batetik etxekoak mantendu eta beste-tik, joan ziren batzuk berriz ere ekarri nahi ditugu taldea sen-dotzeko. 3. mailan dauden tolo-sarrak taldera ekartzea izango da hasierako erronka. Hiruk baiezkoa esan digute honezke-ro, eta horien eta ditugunen

arabera orekatuko dugu tal-dea; bestela, 3. mailan dauden beste batzuetara edo gustuko ditugun Goren Mailakoetara jo beharko dugu. Nire planteamendua beti izango da jokala-riek errendimendua ateratzea, eta barruko lehiakortasunak konpetibitatea ematen du.

Bestelako aldaketarik bai?

Plan oso bat aurkeztu dut. Le-hen ere kide izandako Arrati-bel, Arruabarrena, Gabarain eta Izagirre zuzendaritzan izango dira berriro. Ordezka-riak aldatu egingo dira, eta bai-ta instalazioak ere: beste 'mi-mo' batekin zainduko dira. An-tolakuntza berria modernoa-go izango da, eta funtziona-mendu hobea izango du.

Jubenilak ere aritu dira...

19 eta 22 urte bitarteko 19 jo-kalari ditugu. 22-26 urtekoak 4 eta 26tik gorakoak beste lau. Azken bi urteetan lan handia egin dugu gazteekin, eta ondo aritu dira. Gazteek freskotasu-na dute; beteranoek esperien-tzia. Hala ere, adinertainekoak gehitu behar dira, horiek ema-ten diotelako oreka taldeari.

Hirugarren maila: ametsa?

Tolosak derrigorrez atera be-har du urtero 3. mailan egoteko ametsarekin, baina arrazoiak izan behar dira, amets hori iza-teko. Astakeria da Goren Maila-ko zortzi talde amets horrekin irtetea zelaira. Guk helburu bi-lakatu dezakegu, dudarik ga-be, baina ez da erraza izango. Denboraldia ongi hasi beharko dugu, baina pazientziarekin, mailaz ez delako irailan igo-tzen, udaberrian baino.

ASTE BERDEA ▶

Oria ibaiaren garbiketa ez dute azkenean gaur egingo

Eraikuntza greba dela eta, antolatzaileek ez dituzte andamioak jarriko «arriskuagatik»

I. ETXEBESTE

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna hurbiltzen ari dela —ostiralean ospatuko dute egun hori—, Zuloaga Txiki ingurumen eskolako kideek aurrera segitzen dute Aste Berdearekin. Energia aurrez-tearen aldeko dekalogoia ba-natu zuten atzo ikastetxeetan eta hainbat elektrizitate ere-mutan, eta gaur urari eskal-nitako eguna zuten egitekoa.

Oria ibaiaren garbiketa egin behar zuten ikasleek Zumardi Txiki parean eta Be-rarubini, ibaiko zikinkeriak atereaz; antolatzaileek, or-dea, bertan behera utzi dute ekimena, eraikuntza greba dela-eta andamioak jartzea beharrezkoa zelako. Irailean, Mugikortasun Astearen bai-tan egingo dute ekimen hori,

Samaniego, Lurraren alde

Samaniego ikastetxeokoe ere antolatu nahi izan dituzte ekimenak ingurumenarekin lotuta, euren kabuz. Alde ba-tetik, Lurraren aldeko hitzar-mena sinatuko dute guraso-ek, irakasleek, langileek eta ikasleek. «11:30ean ikaste-txe osoa bilduko gara eta hi-tzarmenaren irakurketa egingo dugu», esan dute an-tolatzaileek. Ondoren, ikasle guztiek sinatuko dute kartel erraldoi batean.

Zuzendariak agurra egin-go du ekitaldiari hasiera emateko. Hezkuntza komuni-tateko parteak bakoitzeko ordezkariek zatika irakurri-ko dute hitzarmena, bertsoe-kin tartekatuz. Bukaeran, eta hitzarmena sinatu aurretik, dantza eta abestiak izango dira. Gorosti guraso elkarte-ko kideak, 500 ikasle, 50 ira-kasle, ikastetxeok langileak eta Tolosako alkatea izango dira ekitaldi horretan.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak moztzeko eskubidea du

Zergatik jai alternatiboak?

Anoetarrok Auzolanean herri plataformako kideok idatzi hau prestatzen ari ginela, egitarau ofizialean, Fidel Azpiroz alkatearen agur mingarria jaso dugu, jai alternatiboak antolatzekeko arrazoiak eta herrian bizi dugun egoera larria ezkututuz. Horregatik, honako hau, honentzat gutun irekia izan nahi du, hau da, alkatearen erantzun publikoaren zain geratzen gara.

Anoetan, azken urte honetan, zer gertatzen ari da, jarrera eta izaera ezberdineko gazteak eta helduak, talde batekoak zein besteok elkartu eta Udaletik

kanpo jai alternatiboak antolatzeke? Hona hemen, besteak beste, gure arrazoiak:

1.- Estatu espainolak duela urtebete, hauteskundeetan ezker abertzalearen parte hartzea galarazteko egindako Alderdien Legean oinarrituta, AuB eta 200dik gora herri plataforma, tartean Anoetarrok Auzolanean plataforma, eta orain Herriarren Zerrenda (HZ) lege kanporatuak izan dira. Horrela, herritarrek hautatzeko eta hautatuak izateko duten eskubidea, elkartzeko askatasuna eta adierazpen askatasunaren eskubideak urratuz. Anoetako PNV/EAJ-EAK lege kanporatzearen aurkako adierazpenak egin arren, ondoren, Anoetarrok Auzolanean plataformari dagozkion 4 hautetsien lapurretari ekiten diote, ezer pasako ez balitz bezala, Udala abian jarritz.

2.- Anoetako PNV/EAJ-EAK, Anoetarrok Auzolanean herri plataformari, nahiz eta joko baldintza desberdinetan lehiatu, lortutako 409 botoei dagozkien 4 zinegotziak lapurtu dizkiote. Hau eskandalu bat da, are gehiago, Hauteskunde Legearen 182. artikuluan oinarrituta, ordezkari itzultzeko aukera legeak ematen duela jakinda. Horregatik herritarren borondatea errespetatzeko eskatzen diegu herri borondatearen arabera udal gestioa egiteko.

Hala, Anoetako PNV/EAJ-EARI eta batez ere Jesus Mari Arsuaga, Nieves Alarcos, Juanjo Martin eta Mari Carmen Egurzari dei bat egiten die Anoetarrok Auzolanean herri plataformak: behingoz herritarren hitzari kasu egin eta dimititu dezatela. Hori litzateke bidea Anoetako egoera ez demokratiko honi buelta emateko eta herritarren hitzean oinarritutako jokalekua eraikitzeke. Borondate politikoa soilik behar da. Anoetako PNV/EAJ-EAK eskubideak urratuz herritarren elkarbizitzara zer ekarpen egiten duten pentsatu beharko lukete.

3.- Bestalde, Anoetako PNV/EAJ-EAK zinegotziek bakarrik osatzen duten Udalaren eta Fidel Azpiroz alkatearen jarrera baztertzaila eta pobrezia

demokratikoa, behin eta berriz, zenbait eragile eta herritarrek salatu dute.

Hortaz, Estatu espainola eta Udala demokrazian oinarritzekoak diren hainbat eta hainbat eskubide urratuz ari direlako, jai eta giro atseginean protesta egitera bildu gaitzen.

PNV/EAJ-EA: 513 bozka = 5 zinegotzi. Anoetarrok Auzolanean: 409 bozka = 4 zinegotzi. Hau da anoetarrek diotena eta Anoetako Udalak bete ez duena.

Zatoz bada, ekainak 5, 6, 9, 10, 11, 12 eta 13an Anoetako jai alternatiboen txoznagunera! Jai alternatiboak aurrera! Udal demokratikoa orain!

ANOETARROK AUZOLANEAN ▶ ANOETA

VILLABONA ▶ KULTURA

‘Sonata segundo batean eta piku’ antzezlan Gurean

22:30ean hasiko da ikuskizuna Patxo Telleria, Aitor Mazo, Jose Cruz Gurrutxaga eta Inazio Tolosaren eskutik

GARAZI AZKUE

Jota Ese, Baster eta Chus dira *Sonata segundo batean eta piku* Patxo Telleriak sortutako obrako protagonistak. Pertsonaia horien azalean sartuko dira bihar Patxo Telleria, Inazio Tolosa eta Jose Cruz Gurrutxaga.

Musikarako izugarritzko sena duen mutil baten istorioa edo pailazo bihurtzen den musiko baten istorioa kontatuko dute t(ARTE)an produktorak prestatutako obra honetan. Antzezlanaren zuzendaritzan, berriz, Patxo Telleria eta Aitor Mazo aski ezagunak daude. Aktoreak ere ezagunak dira dagoeneko, Jose Cruz Gurrutxaga izango da baxuan, Inazio Tolosa tronpetan, saxoan, klarinetean eta pianoan eta Patxo Telleria bera, pianoan.

Antzezlan guztian zehar musika protagonista izango da is-



‘Sonata segundo batean eta piku’ saioko une bat. TOLOSALDEKO HITZA

toriarekin batera. Bachek sortutako obren presentzia nabarmena da obra guztian zehar. Hala ere, pieza garaikideak eta klasikoak elkartuko dira.

Osagai komikoak dituen istorio lazarri bat kontatuko dute

hiri aktoreek, musikaren laguntzaz, *Sonata segundo batean eta piku* antzezlan honetan.

Bihar izango da lana ikusteko aukera Gurea aretoan. 22:30etik aurrera egongo dira aktoreak taula gainean.



Janaria potetan sartzen

LARRAUL ▶ Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak janaria potetan sartzeko ikastaroa jarri zuen martxan astelehenean. Zainuriak eta antxoak sartu zituzten potetan. 18:30etik 20:30era aritu ziren ikasleak Larraulgo Katillutxulo elkartearen. Ikastaroa ekainaren 28a bitarte luzatuko da. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA



Aste Berdea hasi da

ANOETA ▶ Atzo izan zen Aste Berdearen egun handia. Goizean hitzaldia izan zuten gazteok eta arratsaldean, Denbora antzerki taldeak *Bor bor zabor* ikuskizuna eskaini zuen Anoetako udaletxean. Eta igandean, kamisetak banatuko dituzte krosean. Argazkian, antzerki saioko une bat. GARAZI AZKUE

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ALEGIA ▶

**Helduen
Hezkuntza,
martxan**

Maiatzaren 10ean jarri zen martxan Helduen Hezkuntza Iraunkorra. Astelehenero, izena eman duten bost emakume biltzen dira Jubilatutako Elkartean «gazteetan ikasitako bergogoratzeko, aspaldiko eta gaurko pasadizoen inguruan mintzatzeko...», azaldu dute arduradunek. Edonor joan daiteke bertara. Ikasturte honetako azken eskola ekainaren 14ean izango da.

ALEGIA ▶

**San Juan kalea
istearen «aurkako
jarrera» dendariek**

Udalak San Juan kalea oinezko bihurtze aldera osatu duen proposamena «dese-gokitza» jo dute kale horretako merkatariek. Kalea istea, eurentzat «kaltegarria» izan daitekeela pentsatzen dute. Horretaz gain, «lehen Tonto kaleko bizitza jaitsita badago, orain erabat hilda geratuko da», diote. Gaiaz hitz egiteko alkatearekin hitzordua eskatzeko asmoa agertu dute, bestalde.

IKAZTEGIETA ▶

**Arabar Errioxara
joateko izen
ematea, zabalik**

Arabar Errioxara irteera egingo dute herriko adinekoek datorren ekainaren 16ean. 08:30ean abiatu eta hamaiketako egingo dute Iratzen; ondoren Logroño bisitatu eta Biasterin bazkalduko dute. Arratsaldean, Lizarra bisitatuko dute. Izena udalerekin eman dezakete interesatuek; azken eguna ekainaren 11a (datorren ostirala) izango da. 20 euro ordaindu behar dituzte.

ANOETA ▶

**‘Play-back’-erako izen-
ematea zabalik**

Izena, Jon Ander Odriozolaren dendan, Itzulin edo Ikastolan eman dezakete

O.ESKITXABEL

Anoetako jaien egitarauaren baitan *play-back*-a egingo da datorren ekainaren 11an; 19:00etan izango da.

Bi maila desberdin izango dira; bata, DBHko hirugarren maila bitarteko ikasleek osatuko dute eta, bestea, DBHko laugarren mailatik gorakoek. Irabazleek afari bat lortuko dute sari gisa; bigarren gertatzen direnek, 20 euroko bonoa taldekide bakoitzarentzat eta hirugarren postua lortzen dutenek, 10 euroko bono laguntza.

*Play-back*ean izena emateko azken eguna bihar izango

da. Izena, Jon Ander Odriozolaren dendan, Itzulin edo Ikastolan eman dezakete.

Danborradarako entsegua

Herriko jaietan egingo den haur danborradan ateratzeko entseguak burutzen ari dira herriko gaztetxoak; Haur Hezkuntzako bigarren mailatik gorako ikasturteetako ikasleek hartuko dute parte bertan.

Lehenengo entsegua atzo burutu zuten, eta, bigarrena, eta, azkena, datorren astelehenean, ekainaren 7an, egingo dute. Txarangarekin egingo da entsegu hori Ikastolan 18:30etik aurrera.

GIZARTEA ▶

Hizkuntza eskubideen aldeko manifestaziora joateko autobusa

Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeak larunbateko, ekainaren 5eko, manifestaziora joateko deia luzatu du



Pasa den astean, norbanakoen konpromisoen inguruko kanpaina aurkezteko egin zen prentsaurrekoa. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Hizkuntza eskubideak, denon konpromisoa lelopean manifestazioa egingo da etzi, ekainaren 5ean, Kontseiluak deituta; Iruñeako Golem zine aretoetatik abiatuko da manifestazioa 17:30ean.

Deialdiak bat egiten du Kontseilua azken bolada honetan bultzatzen ari den euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoen ekimenarekin; hiru esparru bereizten dira ekimen horretan: alderdi politikoak eta sindikatuak, enpresa eta entitateak eta herritarrak.

Alderdi politiko eta sindikatu euskararen normalizazioa bultzatzeko eta euskalgintzan ari diren entitateak erasotatik babesteko akordio orokorra bilatzen ari da Kontseilua. Enpresa eta entitateen euskara erabilera indartzeko konpromisoa bultzatzen ari da, bestalde.

Eta bi ildo horiekin batera, «herritarrek euskara ikasteko eta erabiltzeko hartzen ari diren konpromisoa da euskararen normalizazioa bultzatzeko bermerik eraginkorrena», azpimarratu dute Kontseiluak ordezkariek.

Azken alor horretan lanean dihardu Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeak. Zentzu horretan, Iruñean egingo den manifestazioaren helburua «euskararen normalizazioa moteltzen ari dela salatzeko, euskararen aurkako erasoak erantzutea eta hizkuntza eskubideak denon konpromisoa ekimena bultzatzeko» da, «autoz edota autobusez» manifestaziora joateko deia luzatu du.

Autobusez joan nahi dutenek Galtzaundin eman dezakete izena; bihar izango da horretarako azken eguna.

BALIARRAIN ▶ KIROLA

XVI. Pilota Txapelketa Herrikoia, hastear

Haurren partidak larunbatean izango dira eta helduenak, berriz, igandean

O.ESKITXABEL

Udalak antolatzen duen pilota txapelketa herrikoiko lehenengo partidak jokatuko dira asteburu honetan; aurtun, txapelketaren XVI.edizioa izango da.

Larunbatean, ekainaren

5ean, haurren partidak jokatuko dira Atari Soron 19:00etatik aurrera.

Igandean, berriz, hamabost urtetik gorakoek jokatuko dute 12:00etatik aurrera.

Txapelketako finalak, beti bezala, herriko festetan izango dira.

Loatzo

MATRIKULAZIOA
04-05
IKASTURTEA

Musikaz gozatzera anima zaitez!

Epea: ekainak 1-7
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondon	

ESKAINITZA ZABALA:
 musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

MUSIKA ▶

Astelehena arte Loatzoko eskolan matrikulatzeko epea

Alegian lehen aldiz ipiniko dute eta San Juan ikastetxean emango dira eskolak



Loatzoko musika eskolan matrikulatzeko epea datorren astelehenean amaituko da. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Astelehena arte, 10:00etatik 12:00etara izango da Loatzoko musika eskolan matrikula egiteko aukera ondoko tokietan: Aduna, Alegia, Alto, Irura eta Larraulgo udaletxeetan, Anoetako ikastolan, eta Ibarra, Zizurkil eta Villabonako kultur etxeetan. Mankomunitatean eraturiko eskola da Loatzoko eta eskualdeko herri horietan dago zerbitzua eskura.

Alegian, lehenengo aldiz jarriko da martxan Loatzoko eskola. San Juan ikastetxean emango dira eskolak eta bertan, haurrei, gazteek nahiz helduek parte hartu ahal izango dute. «Interesa duten guztiak»

gonbidatuta daudela adierazi dute arduradunek.

Lau eta zazpi urte bitartekoek musika tailerrak, ORSS musika tresnak, jolasak, ipuinak, izango dituzte eskura Alegian. Zazpi urtetik gorakoek berriz, musika tresnak, abesbatza, eta musika hizkuntzak. Musika tresnen barruan, txistua, dulzaina, eskusoinua, trikitixa, txalaparta, eta baxua nabarmentzen dira.

Inguruko herrietako haurrek Alegian bertan eskolak jasotzeko aukera aztertuko dute arduradunek. Halaber, haien artean ere zabali dago izen-ematea.

Ibarrari dagokionez, Udaltzaletza Batzordeak Loatzoko herrian duen presentzia age-

rian utzi nahian zenbait datu argitaratu ditu.

Ibarrakotatuak

Gaur egun Ibarrakotatu 48 familia ari dira zerbitzu hori erabiltzen. Ibarrakotatu 55 ikasle ditu (gaztetxoak, gazteak eta helduak) Loatzok; ikasleak gai eta ikasketa desberdinetan daude izena emanda: musika tailerra, hizkuntza musikala, korua, 10 tresna desberdin eta talde instrumentalean, hain zuzen.

Orotara 102 matrikula egin dira azken ikasturtean. Era berean, aintzat hartu behar da ikasle batzuk matrikula bat baino gehiago egin dutela.

Eskualdeko erabiltzaileek,

orain arte, kostu osoaren %20a ordaindu dute, %20eko ekarpena egin du Eusko Jaurlaritzak eta Udalek gainerako kostua estaltzen dute. Ibarraren kasuan, 59.300 euro ipini ditu Udalak musika eskolarako. Hortaz, ikasle bakoitzeko 581 euroko diru laguntza eman du Udalak 2003-04 ikasturtean.

Loatzoko Musika Eskola abian jarri zenetik, Ibarrakotatu ikasleek kopuruak gora egin du nabarmen, 10 ikasle izatetik 55 izatera igaro baita (%550 handituz). Kostuak ere gora egin du, 4.800tik 59.3000 eurora (%1.235 handituz).

Datu horiek guztiak behar bezala balioetsi, eta inguruko musika eskolatan dagoen egoerarekin alderatu ondoren, Mankomunitateko batzarrean ahobatez 2004-05 ikasturterako tasetan igoera egitea erabaki zen, erabiltzaileen ekarpena handituz eta egoera orekatu nahian. Kopuru horiek zehatz-mehatz matrikulazio kanpainarako argitaratu eta eskainiko den informazioan ikusteko aukera izango da.

Ibarrakotatu egiten den «eskaintza zabala eta anitza» izan dela adierazi dute udal ordezkariak, eta datozen urteetan «fin-katu» egin nahi dutela. Parte hartzen duten ikasleek eta gurasoen balorazioak oso onak dira. «Hala ere, dagoen gaitasuna zein den ikusita, ikasleek kopurua oraindik ere txikia dela izan daiteke». Hortaz, Ibarrakotatu Udalak eta Loatzoko Musika Eskolak badute erronka handi bat etorkizunari begira: eskaintzen den zerbitzua ibartar gehiagorengana helaraztea.

ELDUAIN ▶

Oroimen ekitaldia egin diote Arantxa Otamendiri

Arantxa Otamendi Muñagorri iheslari elduindarrari oroimen ekitaldia egin zioten herenegun Baionako beilatokian, Daxen bere gorpua erraustu aurretik. Igandean hil zen Otamendi, Baionako ospitalean. 1987an egin zuen ihes Otamendik, Felix Sarriegi duela hiru urte zendutako senar alegiarrarekin batera.

IBARRA ▶

San Bartolomeko zozketaren txartelak salgai

Salgai dira dagoeneko Sendi Ekintzak urtero antolatutako San Bartolomeko zozketaren txartelak. Ondoko tabernetan eskuratu daitezke txartelak: Atari, Zubiaurre, Gurasoen elkarte, Txumitxa, Danon Txokoa eta Arkaitz-azpi. Ohi bezala, plazan egingo dute zozketa abuztuaren 19an, herriarren aurrean.

IBARRA ▶

Jatadidaren ikuskizun umoretsua bihar

Bihar 20:00etatik aurrera, Jatadida taldeak Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzaz, antzerki-bakarrizketen emanaldia eskainiko du Benito Izagirre kultur etxean. *Antzerki bakarrizketak: 4 pieza komedia arratsalde baterako* izeneko saioa da Jatadidakoek eskainiko dutena. Ordu eta laurden inguru iraungo du bihar-ko ikuskizunak. Bertan, bi antzezle taularatuko dira eta 15-20 minutuko lau saio eskainiko dituzte gerturatzen direnen aurrean.

MANDIO ▶



Laskorain, 3 TOLOSALDEA

Tolosa. Korreo kalean 70 m²ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Laskorain kalean etxebizitza salgai, 3 gelakoak 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremontari kalean apartamentuak

salgai; bi logela eta logela bakarrekoak. 2 logelakoak 26.500.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Iurre auzoan etxe atxikia salgai; lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua. Polita. 76.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Iurre auzoan etxebizitza salgai, 2 gela, igogailua eta berogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Kondeko aldaian etxebizitza salgai, 90 m²-koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebieten etxebizitza salgai,

egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Trianguloan garaje marra salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Ibaigain kalean 86m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru

logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Bigarren eskuko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Amezketak. Duplexa salgai; 70 m²-koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Elduain. Etxe atxikia 4 gelako eta 2 solairuko. Mandio. 669 87 19 09.

Aia. Azken etxebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelako apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Etxe atxiki rustiko berriak,

portxearekin, 2 gela, bainua eta sukaldez hornitua. Berria. 1.000 m²ko terrenoarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Aro. Errioxan etxebizitza salgai, 75 m²-koa eta hiru gelakoak 16.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK
Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. 669 87 19 09

Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, sailhesbidea ondoan. 669 87 19 09.

LEITZA ▶

Erletako 3. OHOkok deklamazio txapeldun

'Pi, pi, pi' ipuinarekin lortu dute saria eta Malen Lizarragak narratibako 2.a

J. ASTIBIA

Erleta eskolako OHOk 3. mailako ikasleek Pedro Diez de Ultzurrun Irakurmen eta Deklamazio Lehiaketako lehenengo saria irabazi dute.

Berritxu izengoitiak sinatu-ta igorri zuten beren lana, Nafarroko Gobernuak Eus-kara Zerbitzuak antolatzen duen sariaketa horretara eta irabazle atera direnez, oroi-garria, diploma eta 500 euroko saria jasoko dute, bihar ostiralez. «Saria gela osoak jaso du eta jasotako dirua kultur txangoren baten era-biltzeko denez, hurrengo ur-tean ikasbidaia egiteko en-plegatuko dugu», argitu du Sagrario Lasarte irakasleak

'Pi, pi, pi'

Saria *Pi, pi, pi* ipuinarekin lortu dute. Hau Plazaola al-dizkariaren argitaratu zen due-la urte batzuk «ipuin *Aments* izengoitiz sinatu zuen egileak eta ez dugu lor-tu bere egiazko izena zein den jakiterik», irakasleak adierazi duenez. Ipuina har-tu eta gelan prestatu dute. «Ez da irakurketa soil, hiz-kuntzaren doinuak, esamolde-ak eta euskalkiak ere balio handia dute eta hori asko zaindu dugu guk». Lana prestatu beraz eta, zinta ba-tean grabatu eta ilusioz bida-li omen zuten. Eta hara non, saria jaso dute.

Urrezko labana

Ez dira saria lortu duten ba-karrak izan ordea. Malen Li-zarragak bere aldetik, Nafa-rroako Gobernuak Euskara Zerbitzu horrek berak anto-latzen duen Literatura Lehi-a-ketan saria jaso du, 2.a ze-hazki. Kasu honetan sorme-nezko lanak aurkeztu behar ziren eta neskato honek be-rak asmatutako *Urrezko la-bana* ipuina aurkeztu zuen eta esan bezala, baita saria jaso ere.

Gaztetxo honek ere sari-tzat, 125 euro jasoko ditu, ikasketetarako materiala erosteko bale modura.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA



Haur Eskolako handiak gosaltzen ari direla. JAIONE ASTIBIA

Haur Eskolan gela bat gehiago

04-05 ikasturtean hirugarren gela sortuko da eskariari erantzunez

JAIONE ASTIBIA

Maiatzaren 28an udaletxean burutu zen batzarrean, azkenik Leitzako Haur Eskolan, beste gela bat eratzeko akordioa har-tu zuten, aurrekontu aldaketa baten bidez.

Hartutako erabakiaren ara-bera, hurrengo ikastaroan bes-te langile berri bat kontratatuko dute, hirugarren gela horre-tarako. Hasieran, hezitzaile berria aurreko ikasturterako burutu ziren lehiaketa-oposa-keta frogetako zerrendatik har-tzekotan gelditu ziren, alegia bere garaian zerrendan hurre-na gelditu zena izendatuko lu-kete.

Baina puntu honen inguruan erabaki finkorik hartu ez bazen ere, bai ekipamenduari dago-kionez.

Ekipamendua

Orohar, langilearen kontrata-zioan, heziketa materialetan eta ekipamenduan, 14.048 eu-roko inbertsioa izanen da, ho-rrren finantzaketa, alde batetik Nafarroako Gobernuak ema-nen omen dituen 7.737,09 eu-roko diru laguntzarekin, beste-tik gurasoek kuoten bidez or-dainduko dituzten 2.386,28 euroekin eta azkenik Udalak

jarriko dituen 3.924,63 eurore-kin kitatuko omen da, beti ere hirugarren gela hau sortzeko onartu zen aurrekontu aldake-taren arabera.

Leitzako Haur Eskolan hiru langile ari dira lanean egun, 28 haurren hezkuntzaz ardura-tzen direlarik. Bi gela daude: bat 14 hilabetetik hasi eta 2 urte arterainoko 12 haurrekin eta bestea 2-3 urte bitarteko 16 ekin.

Eta gertatu zena izan zen, au-rrematrikulazio epea ireki ze-nean, beste 27 umek eman zu-tela izena. Kontutan hartuz aur-tengo 14 umek hurrengo urtean ere bertan jarraitu be-har dutela, 13 kanpoan gelditu beharrean izanen ziren.

Honekin gurasoak kezkatuta agertu ziren, askotan, bikoteak lan egiten baitu, eta bestalde bai hauek, bai hezitzaileek ere bat egiten zuten ez «hemen es-kaintzen den zerbitzua ez da asistentziala, hezitzailea bai-zik. Besteekin harremanak iz-a-ten eta, ikasten dute. Adin ho-netan ikasten dituzte umeek jokamoldezko pautak eta ere. Eta hori bere geroke hezkun-tzarako ere ikaragarri garran-tzitsua da». Beraiek aldarrika-tzitsua dute «haurtzaindegia bai-no, Haur Eskola» dela beren egoitza.

HITZA
eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailak gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beherapenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidetza saila / Arreta telefona:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leitzaldeko**hitza**



Gazteena eta zaharrena

TOLOSA ▶ Azken XIV Orduko Ibilaldian parte hartu zuten mendizale gazteena eta zaharrena dira argazkian ageri direnak. Ines Lasa alegiarrak 83 urte ditu eta Oier Lasarte ondarrutarrak 12. Biak asko ibiltzen dira mendian. Elkar ezagutu nahi zuten eta atzo arratsaldean elkartu ziren Tolosan. JOXEMI SAIZAR



Laskoraingo neskak, Euskadiko txapeldun

TOLOSA ▶ Aurreko asteburuan Laskorain Ikastolako neska talde hau Euskadiko txapeldun gelditu da areto futboleko, infantil mailan. Astebete lehenago Gipuzkoako txapeldun gelditu ondoren, Durangon izan ziren nafar eta bizkaitarren aurka eta txapelaren itzuli ziren. Bestalde, futbolarik jarraituz, alebin mutilak Gipuzkoako azpitxapeldun eta kadetak txapeldun izan dira. Txirrindularitzan ere Gipuzkoako txapeldunak izan dira erlojuaren kontra. HITZA

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Alkiza. 7. *gezur txiki* ikuskizuna Ramon Agirre eta Joserra Senperena aktoreen eskutik. Bihar 22:00etan ikusgai Kultur Etxean.
Ibarra. Jatadida taldearen *Antzerki-bakarrizketak: 4 pieza komedia arratsalde baterako* izango dira ikusgai bihar 20:00etan Benito Izagirre kultur etxean.
Villabona. *Sonata segundo batean eta piku* antzezlanak. Patxo Telleria, Aitor Mazo, Jose Cruz Gurrutxaga eta Inazio Tolosaren eskutik. Bihar 22:30ean Gurean.

DEIALDIAK

Belauntza. Iker eta Eneko Pouren *Silbergeier. Eskaladan urte bikaina* diapositiba emanaldia Kultur Etxean bihar 20:00etan.
Ibarra. Irudi Txikiak argazki rallya egingo dute bihar 18:00etatik 20:00etara. Hitzordua 17:45ean San Bartolome plazan izango da. Parte-hartzaileek argazki kamera eraman beharko dute.
Ibarra. Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkartearen tabernan, eta Arkaiz-azpin eta Txumitxan
Tolosa. Kontseiluak *Hizkuntz*

eskubideak, denon konpromisoa leloarekin larunbaterako deitu duen manifestaziorako autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea: 19:00etatik 21:00etara Galtzaundin, ostirala arte, 9 eurotan (bazkideek 6 euro).
Tolosa. Etzi kultur anitzetako gastronomia dastaketa Kultur Etxean 11:30ean; herri desberdinetako haur joko tradizionalak plaza Berrian 17:00etan; eta Irason taldearen kontzertua plaza Berrian 23:00etan. Hainbat herriko edari tipikoak eskainiko dituzte. Irizki kulturazindun elkarteak antolatuta.
Villabona. Santio jaietako

danborradarako entsegua. Kultur Etxean 20:00etan.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Faustino Aranzabalaren margoak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Angel Cuadrendoren argazkiak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Conchi Hidaigoren margolanak Eroskiko tabernan.
Tolosa. Charo Medranoren margolanak Lanbroa tabernan. Hilaren amaiera arte.

HITZALDIAK

Tolosa. *Hizkuntz eskubideak eta inmigrazioa.* Juan Inazio Hartsuaga Behatoki zuzendaria. Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. Maider Urkizu abokatuak erregimen zibil ezberdinen inguruan informazioa eskainiko du. Kultur Etxean 20:00etan.
Tolosa. *Miloi bat kilometro,*

beste kulturekiko bilaketa eta gerturaketa. Josu Izuetak Tolosaldeko etorkinekin hizketan. Kultur Etxean bihar 20:00etan.

MUSIKA

Anoeta. 23:00etan Selektah sound sistemen eskutik hip-hop kontzertua txosnagunean eta DJ Bull-en disko festa plazan.
Berastegi. Petti bakarlari nafarrak emanaldi akustikoa eskainiko du bihar 22:30ean. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.
Leitza. Aralar musika eskolako ikasleen kontzertua. Bihar 19:30ean zinemaren.
Tolosa. Akauzate eta Aton Rhumba taldeen emanaldia Bonberenean etzi 22:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *El castigador* filma 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKUAN
Maria Goenaga (Alkiza).
Gaur 83 urte. Urteak urtea gaztetzen ari zai.



URTE ASKUAN
Nerea Egües (Leitza). Gaur urteak beteko ditu. Zorionak eta beste asko bete.



URTE ASKUAN
Unai Mendez (Anoeta). Atzo 2 urte, zorionak Narro, aitabak eta amabakoren partetik.

HITZA,
zorian agurren tartea
Mesedez,
ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behe - Tolosa)

press to

kalitatezko garbiketa azkarrak

EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTEAGATIK:
JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI
ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77